

# Paktuarekiko jarrerak arintzeko eskatu die Agirianok alderdiei

PPk eta EEk Ajuria Eneako Hitzarmena «lehenbailehen» biltzeko eskatu dute

**E**AJk Leitzarango autobidearen auzian izan duen jarrerak egoera larrian jarri du Ajuria Eneako Hitzarmena. PP, EA eta EEk Muga trazaketa onartzeak ituna baliogabetuko duela dioten bitartean, Jose Antonio Agiriano Madrileko Gobernuko ordezkariak jarrerak eta iritziak arintzeko eskatu die.

DONOSTIA

Agirianok dei egin zien atzo alderdi politikoei Ajuria Eneako Hitzarmenari buruz argitara emandako iritzi eta jarrerak arin dezaten eskatzeko. EAJk Leitzarango autobidearen auzia behin-betirako argitu nahi du, Muga izeneko trazaketa onartzuz. Jeltzaleen jarrera hau Hitzarmenaren edukiaren kontrakoa da PP, EA eta EEren iritziak, eta Muga onartzuz gero ituna kinka larrian geratuko dela adierazi dute azken egunotan.

Atzo adierazitakoa ez duela Madrilek aurretik esandakoarekiko aldaketarik agertzen onartu ondoren, Madrilek EAEn duen ordezkariak Ajuria Eneako Hitzarmena alderdikeria gisa ez erabiltzeko eskatu zien alderdiei. «Ituna sendotu behar dugu» esan zuten Hitzarmenaren defentsan.

**OLIVERI, MAYOR OREJA, BANDRES** «Egun egin daitekeen gogoeta bakarra zera da: Gobernuak Itunari ematen dion garrantzia gogoratu, eraginkortasuna eta baliagarritasuna



Jose Antonio Agiriano Madrileko Gobernuaren ordezkaria. OLALDE

na erakutsi bait du» zehaztu zuten Agirianok.

Aldiz indarrean lau urte pasatxo daraman Ajuria Eneako Itunaren baliagarritasuna zalantzan jarri dute Inazio Oliveri, Jaime Mayor Oreja eta Juan Maria Bandres, EA, PP eta EE alderdietako ordezkariak. Euren iritziak, jeltzaleen jarrerak «lurperatu eta baliorik gabe» utzi dute Hitzarmena, eta oraindik ez badute azken erabakia hartu, zalantzan jarri dute hurrengo bileran Ajuria Enean izango diren ala ez.

EEko batzorde exekutiboak Jose Antonio Ardanari Ajuria Eneako Hitzarmenaren bilera «lehenbailehen» deitzea eskatu zion atzo. Dei honekin bat egin zuten PPk. Muga trazaketaren balioko onarpena aztertzeak eskatu du bilera alderdi honek. Bilera «erabakia hartu baino lehen» egin beharko litzateke, PPren us-

tez, «erabakia hartu ondoren ez bait luke zentzurik».

EAJk Lurraldearekin negoziatu du Muga trazaketa eta HBren oniritzia baino ez du lortu. Oliveri atzo esan zuenez, Lurraldearekin adostutakoa Ajuria Eneako Hitzarmenak pasa den urteko arazoak 21 onartutakoaren aurkakoa da. «Paktua hautsi du EAJk» esan zuten. Ituneko bileran onartutakoaren arabera HBren pakturen bat egiteko mahaikideen oniritzia eta adostasuna behar beharrezkoa da.

Ajuria Eneako Hitzarmena «baliorik gabe» geratu da Oliveriren ustez, EAJk Lurraldearekin trazaketa aldaketa onartu eta gero. «Eztabaida tokia beste leku batera eramatu du EAJk eta akordioak hautsi ditu mahaia mantentzeko interes gehien izan behar zuten alderdiak» adierazi zuten.

Jaime Mayor Oreja EAeko

PPko idazkari nagusiak esan du ez duela hurrengo bileran parte hartuko, gaur EAJk autobidearen trazaketa aldatzen badu. «Hori gauzatzen badute —adierazi zuten— paktua lurperatuko dute». PPko batzorde eragilea gaur bilduko da alderdiaren estrategia zehazteko.

Euskadiko Ezkerrek aldiz, atzo aztertu zuen trazaketa aldaketak eragin dezakeena. Hala ere, Juan Maria Bandres EEko lehendakariak bere alderdiak ez duela ituna hautsiko iragari zuten, nahiz eta jeltzaleen jarreraren ondorioz ahuldu dela onartu zuten. EAJk eta PSE-PSOEek ez dute adierazpenik egin Ajuria Eneako Hitzarmenari buruz, baina bi exekutibak atzo aztertu zuten aldaketak paktuan izan dezakeen eragina.

EAJ eta HBren arteko elkarrizketek dagokienez, elkarrizketak berrikustea eskatu zion atzo Partido Popularrak alderdi jeltzaleari. Koronel espainiar baten semea hilik gertatu zen Madrileko ekintzaren ondoren zabalduak agiriak dioenez, koalizio abertzaleak mota honetako ekintzak gaitzesten ez dituen bitartean, «Herri Batasunaren munduarekiko hurbilpenik ez egitea» eskatzen du PPk.

Era berean, gainerako alderdiei «gaur egun oraindik hiltzen ari direnei inolako arrakasta politikorik» ez eskaintzea eskatzen die eta Herri Batasunari «ekintza berri honetaz zerbait esan dezan» esijitzen dio. PPren ustez, «alderdi-demokratikoei ekintza hau agiri eta hitzez kondenatzeaz gain, keinu politikoez ere» kondenatu egin behar dute.

**EA: «Eli Galdos deslegitimatuko du trazaketa aldaketak»**

DONOSTIA

EAJk gaur Gipuzkoako Diputazioko gobernu kontseiluan Leitzarango autobidearen trazaketa aldatzea erabakiko duela eta, Eusko Alkartasunako Exekutiba Nazionalak agiri bat kaleratu zuten Iruñean egindako bileraren ostean. Jeltzaleen erabakia «herri borondateari eta instituzio demokratikoei mezpretxu egitea» litzateke EAren ustez. Baina trazaketa aldaketa Eli Galdos diputatu nagusia bera ere «era moralen deslegitimatuko» egiten duela uste du Carlos Garaikoetxearen alderdiak, «Gipuzkoako herritarren ordezkatzeko gai ez dela azaltzen ari delako».

EAren agiriak Eli Galdosek joan den irailean, Batzar Nagusiek A-2 trazaketa ofiziala berretsi zutenean esandakoa gogoratzen du. Azken erabakia alderdi politikoei eta Batzar Nagusiei dagokiela esan zuten diputatu nagusiak. «Orain, EAJk, Galdos buru duela, berak bakarrik erabaki nahi du trazaketa aldaketa, instituzioetan agertu den gehiengoaren borondatea erespetatuko gabe» dio EAk.

Alderdi honen Exekutiba Nazionalak EAJri eskatu zion Batzar Nagusiek onartutakoa bete dezala eta bertan azaldu ditzala trazaketa aldaketarako arrazoiak.

Jose Antonio Ardanza, EAeko lehendakaria ere kritikatu zuten, «bere lidergo eza nabaria da eta instituzio demokratikoen funtzionamenduari egin zaion erasoari eman dion erantzuna ixiltasuna izan da». Patxi Baztarrika, Euskal Ezkerreko bozeramalearen esanetan, «PSOE, diputatu kontseiluko partaide den eran, eragotzi egin behar du Diputazioak Batzar Nagusietako erabakiari kontra eginez trazaketa aldatzea». EUEn ustez hori izan beharko luke PSE-PSOEren «betebeharra».

## Gobernuak ez du negoziazioa baztertu behar Peter Janke adituak dioenez

DONOSTIA

«Gobernuak negoziaketak alde batera utzita arazoari heldu nahi badiu, oker dago. Eta hau penagarria da» adierazi zuten atzo Peter Jankek, 1985 eta 1986 urteen bitartean Eusko Jaurlaritzaren aginduz Indarkeriari buruzko txostena egin zuten adituetako bat. Txosten haren inguruan koordinatzaile lanak egin zituen aditu honen iritziak, elkarrizketarik ez izatea, ez hitzegitea, txarra da. Hala ere, «negozia ezazue» motatako aholkurik ez zutela eman aitortu du «hori momentu horretan boterea duten politikarrien erabakia delako, Gasteiz eta Madrilek nork, noiz eta zein baldintzatan egin behar den elkarri-

esan behar diotelako». Atzo Bilboko egunkari bati eginiko adierazpenetan noiz negoziatzen den taktika kontua dela argitu du Peter Jankek. Era berean, erabaki hori politikoa dela dio eta «bakarrik politikoa izan daiteke unearen aukeraketa izugarritzko garrantzia duelako» gaineratu du.

Orain 6 urte, txostena argitaratu ondoren, sortu zen iskanbilagatik adituek zein eta nolako negoziaketak egin eta zein motatako solaskideak erabiltzeaz ezer gutxi esan bazuten, orain argiagoa da Janke. «Mota honetako negoziaketetan hauek oztapatu eta lagunduko dutenak egotea oso posible da. Baina ekintza terroristak egiten dituztenak kontrolatzen dituztenekin elkar-

rizketatu behar da. Bestela, okerreko jendearekin negoziatzen ari zara» dio. «Zalantzarik gabe» solaskide bat aurkitu behar da.

Janteren iritziak, 1985ean Euskal Herrira berak eta beste lau adituek, Sir Clive Rose britaniarra, Franco Ferracuti italiarra, Jacques Léauté frantziarra eta Hans Horchem alemaniarra, egindako lanak Gasteizko Gobernu eta Madrilekoaren arteko kontakturik eza haustea lortu zuten. «Ministroek ez zuten elkarrekin hitzegiten, telefonoak eskegiten ziren. Ez zegoen modurik Retolazak Barrionuevoren hitzegin zezan». Lanean jarri eta Jauregiren bitartez Gonzalezekin hitzegin zuten, eta Madrileko Gobernuaren onespina jaso.



KULTURA SAILA

**ARABAN, KULTUR EKINTZAK AUERRERA ATERATZEKO ETA KULTURA INDARTZEKO "ARABA", "KULTURA" ETA "MATEO MORAZA" SARIAK**

Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailak ekintza kulturalak aurrera eramateko eta kultura indartzeko, ondoko sarietarako deialdia zabaldu du:

**"ARABA" saria**, 500.000 pta eta oroigarria, Arabako Lurralde Historikoko Udalei zuzendua.

**"KULTURA" saria**, 350.000 pta eta oroigarria, Arabako Lurralde Historikoko Kultur Elkarteei zuzendua.

**"MATEO MORAZA" saria**, 150.000 pta eta oroigarria, gizabanakoei zuzendua.

Deialdiaren oinarriak interesatuen esku daude Erregistro Orokorra eta Kultura Negoziatuan (Probintzia Enparantza, 5ean, Vitoria-Gasteizen).

Interesa duzuenak aurkezteko epea, 1992.eko Apirilaren 10ean itxiko da.

Vitoria-Gasteizen, 1992.eko Martxoan.

FORU DIPUTATUA - Pedro Manuel Ramos Calvo

DIPUTACION FORAL DE ALAVA  ARABAKO FORU ALDUNDIA